



## EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (A aukera)

### Itxaropena, gaur egungo gure koldarkeria

Günther Andersek ez zuen inoiz eskuratu, pentsalari eta poeta bezala ongi merezia zuen ospea, nahiz eta mende honetako beste pentsalari handiengan, Adorno eta Sartre esaterako, eragina izan zuen. Egia bada ere nuklearren kontrako borrokan parte hartzeak, edo Vietnameko gerraren kontrako Russell Tribunaleko kide izateak Anders aski ezagun egin zutela, bere pentsamendu eta bizitzaren beste alderdi batzuk berriz ezezagun samar dira egun. Agian beti zirkuitu nagusietatik kanpo pentsatu eta idatzi zuelako, edota, oso pentsalari polifazetikoa izateaz gain, injustiziaren salatzaile ausarta eta polemikoa zelako ere.

Andersen azken jokabide hau zela eta, zenbaitek praktikara «desertatu» izana aurpegiratu zion: hutsegite barkaezina filosofo batengan, hala eta guztiz maiz barkagarriagoa izaten dena, baldin eta praktika horrek beste aldera jotzen badu. Hans Magnus Enzensbergerrek 1958an ongi adierazi zuenez, batzuk «maila periodistikora» jaistea arrazoirik gabe leporatu zioten arren, Andersek —zorionez— ez zuen inoiz atzera egin, «norberaren garaiko sufrimenduez arduratzeak deskreditatzea dakarrenean, filosofoak duintasun faltagatik galtzen baitu dagokion eskubidea».

Andersek bizitza osoan eutsi zion aipatu jokabide honi. Eta beti jo zuen ezmoraltzat klase akademikoarentzat soilik idaztea, okina ogia okinentzat bakarrik egingo balu bezain ezmoral eta zentzugabetzat. Izan ere, Andersek —beste filosofoak gogoan eduki ez ezik— boterearen txantajearen kontra borrokatzeko prest dagoen edonori zuzentzen zizkion bere testuak eta ahaleginak. Horregatik, eta hizkuntza ez delako inoiz errugabe, etengabe aztertzen ohi zituen eztabaidan eta idazkietan erabilitako terminuak.

Egindako lanarengatik sari ugari jaso zituen, beste batzuei berriz uko egin zien, boterea bere izena posizio bat justifikatzeko erabiltzen ari zela susmoa izan zuen guztietan alegia. Inoiz ez baitzion ihes egin munduan gertatzen ari zenari eta bizitzaren azken urteetan, laurogeita hamar urte zuela ere, txantaje nuklearrari aurre egiteko eta hil ala biziko borrokarako deia egiten segitu zuen.

### *Totalitarismoaren kontrako borroka*

Günther Anders Breslaun (gaurko Polonia) jaio zen 1902an, judu asimilatuen familia baten baitan. Judu izatearen kontzientzia ez zien etxekoei zor, gaztaroko lagun bati baizik, Ekialdeko etorkinen semea hau eta «bigarren mailako» judua, beraz; ongi bizi ziren Alemaniako juduen begietan. Identitate-gatazkak sufrimendu handia sortarazi zion Andersi gazte-gaztetatik. Laster ulertu zuelako, integrazioa bilatu eta bere burua ukatzen duen subjektua —bere nortasunaren definizioa nahiz patua besteren esku utzita— defentsarik gabeko egoera arriskutsu eta tragikoan bizi dela.

*Jakin aldizkaria.*





## Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *ospea, hutsegite, atzera, patua* (Puntu bat).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (1'5 puntu).
3. Aipatu letra etzanean azaltzen diren hitzen deklinabide-kasua eta numeroa, falta diren numeroen formak eman. Hona hitzak: *sufrimenduez, akademikoarentzat, okina, nuklearrari* (1'5 puntu).
4. Aztertu testuaren egokitzapena. (3 puntu).
5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
6. Aipa itzazu Bernardo Atxagaren idazlanak eta kokatu bere ingurune historikoan (Puntu bat).



## EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (B aukera)

### OROIMEN AZTERKETAK

Azterketa egitera etortzen direnek burua ongi ohi dute, bestela ez dira etortzen. Hala ere, baliagarria da oroimen testak egitea jendea ohar dadin Alzheimer gaitzaz. Pablo Martinez Lage Burlatako Landazabal zaharren *egoitzako* neurologoak eguna eman zuen atzo hurbiltzen zirenei azterketak egiten, memoria azterketak egiten. Hamar bat galdera xume, ariketa txikiak barne, ikusteko hutsik ba ote dagoen, Alzheimer gaitzaren hasiera hobekien erakuts dezakeen ahalmenak (oroimenak) ba ote duen akatsik. «Jendeak egiten ditu odol azterketak, tentsio azterketak, kolesterol azterketak... Zergatik ez oroimen azterketak?»

Galdetegi logikoa da. Itaundu egiten zaio gaixo *usteari* ea non dagoen, zer egunetan bizi den; ariketa matematiko txikiak planteatzen zaizkio, hiru hitzekin osatutako esaldiak errepikatzeko eskatzen... Dena ondo erantzunda 30 puntu lortzen dira. «Guretzako muga 23 puntutan dago; hortik behera, arazoren bat dago. Erantzuten duenak unibertsitate ikasketak baldin baditu, 26 puntu litzateke gutxienekoa, eta ikasi gabeen kasuan 19 edo».

Jakina, azterketaren **emaitzak** ez du esan nahi, nahitaez, gaixotasunik dagoenik. Memoria arazoak lotuta egon daitezke estres kasuekin, edo nerbioekin, baina, ora har, esan daiteke 65 urtetik beherakoen artean memoria arazoak oso txikiak direla.

Iaz egin zuten lehendabiziko aldiz Landazabalen horrelako esperientzia bat, eta emaitza primerakoa izan zen, 60 bat lagun joan baitziren euren neuronen osasun egoera aztertzerara. Atzo, ordea, motel zebilen: goizean bi lagun bakarrik hurbildu ziren egoitzeraino. Arratsaldean jariora handiagoa zen.

Bi kontsulten artean kafea hartzen zuen bitartean, Martinez Lagek azpimarratzen zituen azken hamar *urteotan* Alzheimer **gaixotasunaren** inguruko ikerketak egin dituen aurrerapausoak. «Beti uste izan da Alzheimer —oroimen galerarekin berehala antzematen dena— lotuta zegoela odol jarioaren **gutxitzearekin**, baina orain badakigu endekapenezkoa dela. Gainera, lotuta dago *adinarekin* bai, baina ez zahartzearekin. Izan ere, gaixotasuna 65 urtetik 90ra bitarte garatzen da, baina hortik aurrera jaitsi egiten dira gaixoen kopuruak. Horregatik, berez, zahartzearekin estuki ez dagoenez lotuta, esan dezakegu gaixotasuna dela».

Atzo azterketa egin zuten gehienek ezezkoa eman zuten. Andre batek —andre dotorea, alabak lagunduta iritsi zena—, galdetu ziotenean ea non zegoen, «alabaren herrian» erantzun zuen. Ez zuen gogoratzen Burlata izena.

*Berria egunkaria*



## Galderak

1. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (2 puntu)
2. Aipatu letra etzanean azaltzen diren hitzen deklinabide-kasua eta numeroa, falta diren numeroen formak emanaz: *egoitzako, usteari, urteotan, adinarekin* (Puntu bat)
3. Beltz nabarmenez dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin: *gutxitze, oroimen, emaitza, gaixotasuna* (Puntu bat).
4. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
5. Aztertu testuaren koherentzia eta kohesioa (3 puntu).
6. Txomin Agirre: koka ezazu bere garaian eta mintza zaitetz bere obren ezaugarriez (Puntu bat)